

Sutondoan (“Oneski”. 20 urte)

Urteak pasa ahala, hilea zuritu eta zakartu egiten da; begiak dirdira eta bizitasuna galtzen dute; azalak gaztetan duen leuntasuna galtzen du; eta gorputzak albo batera uzten ditu garai batean izandako neurri eta tankera. Ispilura begiratu eta uneoro antzematen da gaztetasuna badoala.

Prozesu horretan bizitzako zenbait pasadizo galdu egiten dira, ahaztu, zahartzaroa bera arduratzen da istorio hauek atzean uzteaz; Gure burmuinek gehiagorako lekurik ez balute bezala. Bizitzan garrantzitsutzat jo ditugun beste makina bat gauza, ordea, garbi, mendi tontorreko urak duen garbitasunarekin gogoratzen ditugu. Gaztetako zenbati pasadizo eszenaz eszena, filme batetako irudiak bezala, lausotu barik azaltzen dira gure begien aurrean; garaiko gardentasuna galdu gabe. Askotan gure buruan burrunbaka aritzen dira gaztetako bizipenak, behin berriz gogoratzen dira gaztetasunak alde egin eta zahartzaroari lekua uzten dionean. Garrantzitsutzat jo ez ditugun beste makina bat gauza ere gogoratzen ditugu, askotan zergatik gogoratzen ditugun jakin ere egin gabe.

Nire amonari horrelako zerbait gertatzen zitzaion. Bere ezkontza eguna gogoratzeko gaitasunik ez zuen, inoiz ere ez zuen egun hura ahotan izan, ez zuen egun hura inoiz aipatu. Istorioez, eta batez ere amodioaz hitz egiten zuten pasadizoez gainezka zuen burua. Ez zuen bere ahotan besterik. Egund bat bera ez zen igarotzen gure amonak istorio eder bat kontatu gabe. Guk gustura entzuten genizkion istorio haiek, aho zabalik, guretzat fantasiaren munduan murgiltzea zakarren hark. Behin eta berriz errepikatzen zizkigun istorio berberak; dirudienez zer kontatzen zigun ere gogoratzeko gaitasunik ez zuen jada. Askok amona jota zegoela esaten zuten, baina nik jakin badakit amonak bere osotasun osoa gorde

zuela hil zen egun arte; baina berari ere fantasiaren munduan bizitzea izugarri gustatzen zitzaion.

Garai hartan telebistarik ez zen gure etxean eta neguko hotzaren laztasunean gozoak ziren beti amonaren hitzak. Ordu luzeak igarotzen genituen, sutondoan jarriarik eta bide batez amonaren istorio polit haiek entzunaz. Artoa aletzen edota babarrunak bereizten aritzen ginen amonaren inguruan; berak, noizean behin altxatu eta suari egurra bota ostean, berriz ere eseri eta berdinean jarduten zuen. Istorio haiek kontatzeko begirada ere galdu egiten zuen, bazirudien ametsetan zegoela, ez zuela begi aurrean zuena ikusteko ahalmenik ere, kontatzen zituen istorioak betetzen baitzuten osoki.

Hala ere, kontatzen zituen istorio guztiak ez ziren amets gozoetan egiten ditugun ohietako, askok bihotza samurtu eta begiak busti ere egiten zizkigun, baita amonari ere, nahiz eta behin eta berriz kontatzen aritu

Amonaren berbaldia beldurtzeko modukoa zen, ez zen isildu ere egiten jadunean hasten zenean. Istorioetako pertsonaiak osoki, datu zehatzekin deskribatzen zituen. Pertsonaia asko aldameneko etxeko bizilagunak baino ezagunagoak zitzaizkigun, bazirudien une batetik bestera sukaldeko atetik barna sartuko zirela.

Gure aitari ez zitzaion gehiegi gustatzen amonaren jarduna. Bere ustez umeak txoratzeko bestetarako ez zuen balio hark. Gainera lanik ere ez genuela egiten esaten zigun behin eta berriz. Baina egia esan nire amonari ez zitzaion gehiegi axola nire aitaren esana, berak berean jarraitzen zuen. Aitonak ere, behin eta berriz leporatzen zion aspergarri ere egiten zela bere berbaldia. Gure aitona amona baino urte batzuk zaharragoa zen eta bere azken urteak etxe aldetik igaro behar izan zituen, gaixotasunak eraginda. Hori dela eta, nahi baino gehiagotan entzun behar izaten zituen amonaren istorioak

Baziren zenbait istorio gustukoago zituenak eta hiru egunetik behin errepikatzen zizkigunak katalinaren istorio zen horietako bat; guk ere behin eta berriz eskatzen genion hura kontatzeko. Gure amonak ez zuen txintarik esaten eta horrela hasten zen:

“Bazen behin herri txiki batean Kattalina izeneko neska eder bat, familia ugaria zen berea, eta gazte gaztetatik gogor egin behar izan zuen lan hura aurrera ateratzeko. Polita zen benetan Kattalina, ile beltz leuna, azala elur berria baino zuriagoa eta begi ilun eta handiak zituen. Betidanik oso neska isil eta apala izan zen Kattalina, ez zuen alperreko hitz askorik esaten.

Adinean aurrera egin ahal bere edertasuna areagotzen joan zen. Merkatura saltzera joaten zenean ere begi guztiak berengana biltzen zituen Kattalinak. Etxeko astoan jaisten zen Kattalina merkatura aberearen magalean eserita. Hura etorri zai egoten ziren askotan herriko mutilak, bere edertasunak liluratuta uzten zituen guztiak, begiak zabal-zabal egoten guztiak.

Kattalinak, ordea, mutil bat zuen begietan, begietan eta bere bihotzeko bazter guztietan. Antton herriko mutil galaiena zen, bere moduan merkaturan saltzen zituen hark ere bere etxeko fruitu gozoenak. Hitztuna zen Antton, egoera guztietan hitzik egokienak aukeratzen zekien horietakoa. Hala ere hitzik gozo eta eztitsuenak Kattalinari eskaintzen zizkion. Auzoko etxe batean bizi zen Antton eta maiz egiten zuten itzulera bidea elkarrekin. Anttonek Kattalinari izugarri laguntzen zion, izan ere esku zabala eta batez ere bihotz zabalekoa zen. Elkarrekin ezagutu zuten lehen maitasunaren ezintasuna eta gozotasuna.

Eurena, ordea, isileko maitasun istorioa zen; ezkutuan izan zuten, beren gaztetasuna zela eta. Gainera, garai hartan famili bakoitzak izaten zituen beren seme alabentzat senargai edo emaztegai gogokoak, eta horretan euren gurasoak ez ziren ados jarri bi gazteek beren bihotzean sentitzen zutenarekin. Beraiena,j ordea, benetako maitasuna zen; bizitzan behin bakarrik sentitzen den horietakoa.

Ez ziren garai onak haiek, jendeak eguneroko ogia lortzeko arras lan egin behar izaten zuen. Segurtasun eza izugarria zen. Hori horrela izanik jende asko abiatu zen Amerikara, bazirudien urrezko lurraldea zela hura, aberastasuna gotorlekua.

Anttonek ere askotan izaten zuen ahotan. Bertara joan ez gero lortuko zuen diruaz mintzatzen zitzaion Kattalinari begiak lausotuta. Katalinak ez zion kasu handirik egiten, ameslari xamarra baitzen Antton. Urte haietako uzta txarrak ordea, pizgarri izan ziren bere ametsa egi bihurtzeko eta Anttonek Kattalinari Ameriketara joateko zituen asmoak azaldu zizkion.

Aberastasun ametsak zoratu zuen Antton. Eta hark jarri zuen Ameriketara bidean. Lurrak lortu, gogor lan egin eta aberastuta itzultzeko ametsa zuen Anttonek buruan, horretarako prest zegoen; guztia uzteko prest.

Joan aurretik ordea, itzuliko zela eta orduan betirako zoriontsu izango zirela ziurtatu zion. Idatziko ziola eta bera etorri zai egoteko eskatu zion halaber.

Horrela abiatu zuen bere bizitzako bidaia Anttonek. Kattalinak hasiera batean amets edo zoroaldia bat besterik ez zela uste zuen, baina herritik joaten ikusi zuen egunean, zorigaiztoko egun hartan, sinetsi zuen.

Joan eta lau hilabetetara iritsi zen Antton lehen eskutitza herrira, Kattalinaren eskuetara. Laburra zen eskutitza, laburra eta ere berean oso sakona.

Kaixo kattalina maitea.

Dagoeneko artalde txiki baten jabe naiz. Orain mendira noa eta ez dizut hilabete batzuetan berriz idatziko, baina zaude ziur herrira itzuliko naizela, abiatu nintzenean baino gehiago maite zaitudala eta neure besoetan izateko gogoz gainezka nagoela. Zaude lasai garai hobeak etortzeko daude, biok elkarrekin gozatuko dugu haietaz.

Maite zaitut.

Gutun asko jaso zituen Kattalinak urte haietan. Bere etxean ordea, ez zuten egoera hura gehiegi atsegin, Kattalinari hura ahazteko eta gizon zentzudun batekin ezkontzeko esaten zioten,

Aitaren heriotzak ekarri zuen Kattalinaren bizitzako zorigaiztorik handiena. Gaixotasun larri batek heriotza ekarri zion aitari eta Kattalinari berriz bizitzako erabaki zailena hartu beharra. Garai hartan aitaren heriotzak familia osoak miseria ezagutzea zekarren. Hori horrela, etxea aurrera eramateko gizon baten beharra izan zuten, eta Kattalinari ezkondu beharra etorri zitzaion. Hautagai ugari izan zituen Kattalinak. Azkenean behartuta, baino herriko gizon heldu batekin ezkondu zen. Bai bazekien gizon hark bere familia aurrera ateratzeko modua izango zuela.

Ezkondu zen egunean ere Kattalinak bere begiak malkoz gainezka zituen, tristuraren tristurak jota. Bere begiek dizdira galdu zuten egun hartan bertan, eta bere irribarrea zimeldu egin zen, loreak udazkenean zimeltzen diren moduan. Benetan atsekabetu zen Kattalina hartu zuen erabakiarekin, bai baitzekien bere bizitzako akatsa izan zela hura.

Itsasoaz bestalde, Anttonek berehala izan zuen ezkontza haren berri. Izan ere herri txiki hauetan albisteak korrika ibiltzen dira ahotik ahora eta horrela ez denean eskutitz bitartez arrapaladan abiatzen dira itsasoaz bestaldera. Maliziaz idatziriko eskutitza izan zen hura, bai baitzekiten albiste hark Anttonen barrunak astinduko zituela. Antton gogor ari zen lanean Ameriketara, herrira itzuli eta Kattalinari bizitza duin eta eroso bat emateko. Kattalinaren ezkontzaren berri izan zuenean berehala etxera itzultzeko gogoia etorri zitzaion, baina denbora pasa ahala eta sentitzen zuen gorrotoa baretu ahala, bertan geratzea erabaki zuen, azken batean herrian utziriko altxorra galdu baitzuen.”

Horrela bukatzen zuen gure amonak istorio hura. Gehienetan Antton Ameriketara iritsi baina lehenago gure begiak bustita geneuzkan. Nire amonari

ere, istorioa hainbat bider kontatu arren, begiak malkoez gainezka jartzen zitzaizkion.

Guk behin eta berriz, galdetzen genion ea Antton itzuli zen, ea zer egin zuen Kattalinak. Baina berak ezer ere ez zigun esaten, behera begiratu eta lanari ekiten zion. Urteetan izan genuen nik eta nire anai- arrebek jakinmin hura. Baina inoiz ez genuen jaso galdera haien erantzuna.

Amona hil zenean, ordea guztiak gure bizitzako ustekaberik handiena jaso genuen. Gure amonak ez zituen ondasun asko. Hil zenean ezer gutxi utzi zuen guretzat. Egurrezko kasa batean bildu zituen guri eman nahi zizkigun bitxikeri guztiak. Nire amak kaxa hura eman zigun egunean, ulertu genuen gure amonak istorio hura kontatzen zuenean sentitzen zuena. Izan ere kaxa hartan, liburu, eta bitxikeri ugari aurkitzean gain Amerikatik etorritako eskutitz bat aurkitu genuen.

Orduan ulertu nituen ordurarte ulergaitzak zitzaizkidan gauza asko. Orduan ulertu nituen zure begiak, amona; orduan nire aitonarenganako begirunea, maitasun arraroa, aurpegian zenuen zimeltasuna eta tristura; eta orduan ulertu nituen ere zure bizitzako zenbait gauza kontatu ez izana. Antton galdu zenuen ez geroz hil da bizi izan baitzara.

Anttonekin zer gertatu zen jakiteko gogoia ere izan nuen eta egi esan inoiz ez dute haren berririk izan. Dirudienez, edota jende askok dioenez, Ameriketan galdu zen Antton, lurrak irentsi balu bezala desagertu zen

Amonaz, eta istorio honetaz gogoratzen naizen bakoitzean beldurra sortzen zait. Izan ere, horrelako maitasun istorio bat ezagutzeak, samina eta indibia latza sortzen dizkit. Kattalina eta Anttonek, tristuraz beterik izan zuten bihotza beren bizitza guztian zehar. Baina bederen, benetako maitasuna itsutu, gogortu eta zentzua galduta uzten zaituena ezagutzeko parada izan zuten, nahiz eta maitasun eder hura bera izan, bere bizitzak triste eta atsekabetu egin zituena.

Horregatik istorioa honek benetako maitasunean sinesten ez duten horientzat ikasgai izan nahi du.